Agindua, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuarena, zeinaren bidez aldez aurretik onartzen baita EAEko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresna arautzen duen dekretu-proiektua.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuaren 2026ko uztailaren 3ko Aginduaren bidez, EAEn haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresna arautzen duen dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko agindu zen.

Haur, Nerabe eta Familien Zuzendaritzari agindu zitzaion proiektu hori izapidetzea.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikuluak ezartzen duenez, xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

Azaldutakoagatik, egindako proiektuaren testua ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Aldez aurretik onartzea EAEko haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan babesgabetasun-egoeren larritasuna balioesteko tresna arautzen duen dekretu-proiektuaren testua.

Bigarrena. – Dekretu-proiektuaren testua Eusko Legebiltzarrera bidaltzea, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluaren 1. apartatuan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena. – Dekretu-proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean ezarritako izapideen arabera, Gobernu Kontseiluak onar dezan.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den eguna.

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburua

NEREA MELGOSA VEGA

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.